

## Hezkuntzako ikasleen lan solidarioa Euskal Herrira zabaltzen ari da

2013/05/14

### “Jarduera Soziokulturalak, proiektuen kudeaketa” materian,

Hezkuntzako ikasleak inguruarekin jarri dira harremanetan, beren jakintza eta trebetasuna inguruarekiko konpromisoaren zerbitzuetara jarrita. Eta zergatik konpromisoren batean oinarritutako materia bat? Zein da helburua? Zer eskaintzen du materia horrek?

Maateria horren ardatzetako bat konpromisoa da, eta konpromiso horretan oinarrituta, zerbitzu bat eskaintzen diote inguruari. Hala ere, ikasketen helburua ez da zerbitzua eskaintzea soilik, zenbait ezagutza eta konpetentzia garatzea ere bada. Hain zuzen, eskaintzen duten zerbitzua, **Ikasketak eta Zerbitzua (I+Z)** izeneko metodologia baten parte da. Metodologia horren helburua da ikasleek dituzten ezagutzak eta konpetentziak zerbitzu baten mesedetan jartzea, eta aldi berean, zerbitzu horren lanketa, beren formazio profesionalerako baliagarri izango zaizkien beste ezagutza eta konpetentzia batzuk garatzea.

Ikasleak ematen ari diren zerbitzuak jendarteko beharrian erreal bati erantzuten dio. Izan ere, etorkizuneko irakasleak izango diren heinean, hainbat dira eskolak bermatu behar dituen alderdiak: aukera berdintsuak eskaintzea, kontuan hartu barik ikasleen jatorria; arrazoi pertsonal, sozial edota ekonomikoen ondorioz sortutako aldeak berdintzea hainbatetan gertatzen den segregazioa ekidinez; elkartasuna eta talde-izaera bultzatzea, gizarte indibidualistatik aldentuz; lankidetzeta eta kooperazioa sustatzea lehiakortasunaren aurrean eta hezkidetzeta, sexu-bereizketatik aldentuz. Azken batean, eginkizuna da ikasleei hezkuntza integrala bermatzea, gaur egungo gizartean izan beharreko pentsamendu kritikoa garatzen lagunduz. Izan ere, eredu akademizista zein profesional hutsa ez dira nahikoa izango, ikasleek aurre egin beharreko egoerei erantzuteko.

Aurten, Hezkuntza ikasle hauek ondorengo erakundeekin ari dira elkarlanean:

- Bergarako eta Oñatiko igerilekuan; igeriketa egokitua
- Elgoibarko Izarra Kultur Elkarte
- Isabel Orbe Araba Down Elkarte
- Etorkinei Euskara eta Gaztelania irakasten eskoletan
- Hermansoloña
- Bizitza Unibertsitarioa
- Bagara (herrigintza gaztea)
- Txolarte- Atzegi
- Zarauzko dantza taldea
- Eskoriatzako zaharren egoitza
- Aisialdi elkarteak
  - Intxorta asti
  - Oskarbi
  - Aranako Eskaut-gia
  - Txirikila
  - Sorgintxulo
  - ... eta kitto! Euskara elkarte
  - Zabalgain kultur ekimena
  - Manos comprometidas
  - Ludotekak
  - Geu Be
  - Uliazpi
  - Loramendi Euskara Elkarte
  - Jarduntxio euskaraz txio txio!
  - Martiartu kirol kluba
  - Txatxilipurdi
  - Oarsoaldeko igeriketa taldea
  - Eskoriatzako kirol elkarte



- Gernikako zesta punta eskola
- UDA kirol elkarte
- HUHEZlko kirol zerbitzua
- Ibarraundi museoa
- Eskoriatzako udala
- Coop57
- Nuestra Señora de las Mercedes
- Iruneko Gurutze Gorria
- Bidezko merkataritza eta eko-ropa
- Berbaro elkarte
- GARAGUNE
- GORABIDE
- Lagun taldea
- Pasaiako El Paseo eguneko zentroa
- Donostiako Herri Harresia
- Abadiñoeko gaztetxea
- Aretxabaletako zaharren egoitza
- Save the children
- Arrasateko zaharren egoitza
- Arabako, Gipuzkoako eta Bizkaiako ASPACE
- APDEMA
- Lasarte-Oriako jai batzordea

Informazio gehiago, [Lan Solidarioa Hezkuntzan](#) izeneko blogean duzue.

Hezkuntzako ikasle hauek Hezkuntza-sistema integral, laiko, euskaldun, kohezitzaile, SOLIDARIO eta parte-hartzailearen aldekoak dira. (Albiste hau **Komunikazio taldeak** landu du, hori baita materia honen beste atal bat, komunikazioa),

